

2024KO ARTILE BILKETA

Kaixo baserritar, aurtengoan ere antolatu dugu artile bilketa, zerbitzua URRIAN hasiko da.

laz bezala, aurten ere, ahalik eta gehien sinplifikatu nahi da, baina horrek, guztioi ahalegin handiagoa egitea eskatuko digu. Antolakuntzan hiru erakundek hartuko dugu parte: Landaolak, Lurgintzak eta Abelurrek.

Finantzaketaren zati bat GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK egingo du eta bestea artzainek.

Kostua ardi-kopuruaren arabera izango da, erantsitako koadroaren arabera. Tarifa hauek pasa den urteko berberak dira KPI-a aplikatuta soilik. Bertako kostuan dirulaguntza aplikatuta daukate.

ARTALDEA	KOSTUA (B.E.Z. barne)
1--50	39,44
51-100	65,78
101-150	92,07
151-200	118,36
201-250	144,65
251-300	170,94
301-350	197,23
351-400	223,52
401-500	276,10
501-600	328,73
601-700	381,32
701 <	434,67

Interesdunek 696 433 602.telefonora deitu behar dute. Eman beharreko informazioa honakoa da:

Entregatzeko eguna, ordua eta tokia.

- Artzainak bere izena, deiturak, helbidea eta NAN eman beharko ditu, eta bat etorri beharko du artalde hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren kanpainako datuetan erregistratuta dagoen izenarekin. Informazio hori beharrezkoa da faktura egiteko. Faktura hau, garrantzi handiko dokumentua bihurtuko da erakundearen aurrean (ikuskapenetan) artilearekin zer egin den adierazteko garaian.
- Artzainak azken erroldan zenbat ardi dituen adieraziko du.

Entrega egiteko unean honela izango da antolaketa:

- Artzain bakoitzak artilea entrega-lekura esandako orduan eramango du.
- Zakuak artzainak berak hustu beharko ditu.
- **Entrega gunean sartzean, artzainak dagokion zenbatekoa ordaindu izanaren egiaztagiria erakutsiko dio bertan dagoen arduradunari.** Horrek esan nahi du artzainak entrega egin baino lehen ordaindu

Laguntzailea:



Antolatzaileak:



beharko duela. Egiaztagiri hori ezean ez da artilerik jasoko. Ordainketa egiteko kontu zenbakia hauxe da: **CAJA RURAL ES50 3008 0152 6549 2039 5821** eta **jarri beharreko kontzeptua: IZEN ABIZENAK+ BASERRIA**

- Entrega egin ondoren, entrega-leku horretako antolatzaileak faktura bat emango dio.

Egindako proposamenak artzainen ahalegin handiagoa eskatzen duela ulertzen dugu, baina profesional kopuru handia kudeatzeak ere kostu handiak dakartza, eta ahal den neurrian, mugatu behar ditugu. Kontutan izan behar da, artilea jaso ondoren, kamioi berezi batean eraman behar dela (Sandach 3 produktua delako), kargatzeko luma-kamioi bat behar dela, eta, gainera, produktua eramaten den enpresan tasa bat ordaindu behar dela.

DEITU BEHAR DEN TELEFONO ZENBAKIA: 696 433 602
ORDAINKETARAKO KONTU ZENBAKIA: <u>CAJA RURAL ES50 3008 0152 6549 2039 5821</u>
<u>Jarri beharreko kontzeptua: IZEN ABIZENAK + BASERRIA</u>

ENTREGARAKO GUNEAK eta EGUNAK:

EGUNAK	LEKUAK	HELBIDEA
URRIAK 14	IDIAZABAL	DISEMINADO RURAL BARREIATUA 93 (GORROTXATEGIN GRANJA)
URRIAK 16	AZPEITIA	LAPATX. UROLA ERDIKO MANKOMUNIDADEA, ERREZIL BIDEA Z/G (GARBIGUNEA)
URRIAK 21	ASTEASU	AGROALDEAN, ZONA INDUSTRIAL Pol., 188
URRIAK 28	OIARTZUN	MAKUTXO BIDEA, 5
URRIAK 30	BERASTEGI	ARTALEKUN, AITZERGA AUZOA
AZAROAK 4	ELGOIBAR	IMH IKASTETXE AZPIKALDEKO APEA GUNEA
AZAROAK 6	OÑATI	URRUTXUKO EKARPEN GUNEA

Edozein zalantza edo argibide behar izanez gero, deitu adierazitako telefono zenbakira.

Ondo izan,

Azpeitian, 2024ko irailaren 20an

OHARRA: Datu Babesen legearen arabera datorren kanpaina ez baduzu informaziorik jaso nahi, mesedez, jakinarazi telefono zenbaki honetan: 696 433 602.

Laguntzailea:



Antolatzaileak:

